



Lehiaren Euskal Agintaritzak udal kirol instalazioetan lehia sustatzeko txostena onetsi du

Erakusten duenez, ohikoa da Udalek irabazi asmorik gabeko klubei udal kirol instalazioen erabileraren gaineko abantailak ematea

Jarduera ekonomikoen kasuetan, instalazio publikoen titularrak nolabaiteko lehiaketa prozedura deitu beharko du, erabileraren erreserba kirol eta gizarte ikuspegitik eskaintza onena aurkezten duen kirol klubari emateko

BILBON, 2020ko martxoaren 26an / Lehiaren Euskal Agintaritzak, irabazi asmorik gabeko kirol klubei edo erakundeei udal kirol instalazioen erabileraren gainean abantailak ematearen gaineko txostena onetsi du, leku horietan kirol ikastaroak ematen dituzten enpresen aldetik jaso dituen kexei erantzunez.

Txostena kirol jarduera udal-eskumen gisa aitortzetik abiatzen da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.i) eta 26. artikuluetan, Euskadiko Kirolari buruzko 14/1998 Legean eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/20106 Legean ezartzen den bezala.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kirolaren Legeak honela definitzen ditu kirol klubak: irabazi asmorik gabeko eta nortasun juridikoko elkarte pribatuak, pertsona fisikoek edo juridikoek osatutakoak, kirol modalitate bat edo batzuk sustatzea edo praktikatzea xede dutenak, lehiaketa ofizialetan parte hartu edo ez, eta aipatutako Legeak eta Kirol Klubei eta Kirol Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 163/2010 Dekretuak arautzen dituztenak.

Kirol klubak aldeko diskriminazio positiboaren justifikazioa administrazio publikoek egiten duten babesean eta laguntzan oinarrituko litzateke, kirol klubak izaera kontuan hartuta, irabazi asmorik gabeko erakundeak baitira, eta helburu bakarra kirol modalitate bat edo batzuk sustatzea edo praktikatzea baitute.

Diskriminazio positibo horrek mugak ditu kirol klub guztiek euren artean duten tratu berdintasunean, eta baita klubak ez diren pertsona fisikoek edo juridikoek kirol instalazio publikoetara sartzeko edo kirolarekin edo jarduera fisikoarekin erlazionatutako jarduera ekonomiko bat egiteko aukera ez kentzean ere.

Hala, zenbait kirol klubek instalazioak erreserbatzea ezinezkoa balitz, instalazio publikoaren titularrak diskriminaziorik gabeko prozedura ezarri beharko luke, kirol eskaintza eta eskaintza sozial hobea aurkezten duen kirol klubari erabilerarako erreserba esleitzeko baldintza berdinetan lehiatzea bermatuz.

Aldi berean erreserbatzeko ezintasunak kirol klub bati eta irabazi asmoa duen erakunde bati eragiten



badie, kirol klubaren aldeko legezko lehentasuna justifikatuta egongo litzateke, baldin eta kirol klubak ez badu erreserba hori irabazi asmoa duen erakundearekin lehiaren jarduerak ekonomikoak egiteko (doakoak ez diren ikastaroak) erabiltzen. Baina aldi berean erreserbatzeko ezintasunak jarduerak ekonomiko bat egin nahi duen kirol klub bati eta irabazi asmoa duen erakunde bati eragiten badie, legezko lehentasuna ez litzateke kasu horretan gauzatu behar, antzeko jarduerak egingo lituzketen bi erakunde izango bailirateke, lortutako etekinaren azken xedea edozein izanda ere. Kasu horretan, instalazio publikoaren titularrak lehiaketa bat deitu beharko luke, erreserba hori, erabilerarako erreserba eskaintza sozial hobea (ikastaro kopuru handiagoa, prezio baxuagoak, etab.) aurkezten duen erakundeari esleitzeko.

Lehiaren Euskal Agintaritzari buruz

Lehiaren Euskal Agintaritza, administrazio izaera duen erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailari atxikia, eta erakunde eta funtzio autonomia du bere eginkizunak betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoan. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatzea, bermatzea eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduerak ekonomikoari dagokienez.